



ISBN: 978-84-9172-020-1 • 192 orr.

- *Txoriak bederatzi dira*, baina bat ez da ageri, oraindik.
Sigi-saga datoz esaldiak, bitartean.
Liburu hau, ornogabea da eta bareak bezala nahiago du zoru umela,
eta urak bezala, edozein zirrikitu iragaten ez duenean,
erle-liztorren barbaroa eraginez, nahiago du durunda egitea.
- Falta den hitza aurkitzen dutenak dira, liburuan, mundua entzuten dakiten adiskide minak.
- Nork berak ezin du bere burua ferekatu, amultsuki ukituta ere; eta bere burua ezagutu arren ere, ezin du lagundu. Laguna behar du, izango bada.
- Alde onaren ifrentzua ez da alde txarra, alde erantzia baizik.
- 8 eta ∞ , edo infinituaren sinboloa. Zortziaren ikur inbertitua da infinitua.

Gure lagun hori:
Honen bidez gonbidatzen zaitugu heldu den asteartean,
martxoak **13**, arratsaldeko **19:00**etan,
Beasaingo Igartza Jauregian,

TERE IRASTORTZAren
Txoriak dira bederatzi
liburuaren aurkezpena.

Gurekin izanen dira:

TERE IRASTORTZA, *egilea*,
IÑAKI BASTARRIKA, *margolaria*,
JOSE ANGEL IRIGARAY, *Pamielakoa*.



TERE IRASTORTZA GARMENDIA
(Zaldibia, 1961)

Gabeziak (1980) liburuaren ondoren beste hamar poema-liburu etorri dira: *Hostoak* (1983), *Gaia eta Gau aldaketak* (1983), *Derrotaren fabulak* (1986), *Osinberdeko khantoreak* (1986), *Manual devotio gabecoa* (1994) eta aurreko guzti horien bilduma *Gabeziaren Khantoreak* (1995). *Izen gabe, direnak. Haurdunaldi beteko khantoreak* (2000), *Glosak. Esana zetorrena* (2003), *Eta orain badakit* (2011), *Mundua betetzen zenuten* (2015). 1986az geroztik Pamielan argitaratu du.

Bere poemak hizkuntza askotara itzuliak izan dira, eta hainbat antologiatan argitaratuak. 2017an bere azken liburuaren antologia laburra argitaratu du: *Véleros que parecen gaviotas*.

Saiakeran eta zutabegintzan ere aritu izan da. Saiakeran *Izendaezinaz* (2008) liburua argitaratu du, eta bere hainbat saiakera laburrago argitaratu izan dira *Argian*, *Hegatsen*, *Jakinen*, *Eganen* eta *RIEVEN* ere.

Bere idazle gogokoenen itzulpenak eta haiei buruzko saiakerak ere egin ditu. Hala nola, Marina Tsvietaieva, Edmond Jabès, Marià Manent edota Karmele Igartuarenak.

Beasaingo Ikastolako zuzendaria da eta Bergarako Idazle Eskolako gradu-ondokoaren sortzaile eta irakaslea ere bai. UNEDeko Filologia Klasikoko Saileko irakasle da.

Hainbat webgunetako zuzendari ere bada. Hainbat lan eta itzulpen aurki daiteke berean:

www.tereirastortza.com